

PASIO KANTATEGIA

Felix Zubiaga

BIZIAN GORA



PASIO KANTATEGIA



Kantatuaz ospa daigun
Kristoren garaipena,
kurutzean dogulako
guztiok salbamena.
Kanta Kristo kurutzean,
egin Hari omena,
poz bihurtu dauskulako
hain Pasioarena.

NIHIL OBSTAT
Karmelo Etxenagusia Uribe
Eliz-azterlea

IMPRIMATUR
Bilbon, 1995eko maiatzaren 29an
Larreatar Koldobika Mirena
Bilboko Gotzaina

Felix Zubiaga

PASIO KANTATEGIA

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailaren diru-laguntza jaso dau.*

© Ibaizabal Argitaletxea, 1995

ISBN: 84-7992-615-5

Legezko gordailua: BI-410-95

Inprimategia: Zure, S. A.

SARRERA

Gorbeapeko aldapatsuan
 kurutzerantza noala,
 nekeago ta konturatzen naz
 kurtzea ahiendu jatala.
 Baina garaituz nekebidea,
 barriz kurutze garbala
 aurrean dakust eta badakit
 txarrenak joan dirala.

Kurutzeraino ein dot apostu,
 bera da helburu goitarra,
 begira adi nagoko eta
 —haxe bideko malkarra!—
 begietatik muga-seinua
 dodan laguntza bakarra
 galdurik ere, bideak dinost
 jo behar dala aurrera.

Ia unatu nagola zatoz
 barriz, kurutze laguna,
 gogoak argi, oinak bideko
 makulu sendo zaituna.
 Arnasa estuak, nekeak nauka
 —apostuaren astuna!—
 Jesusen kurutz horrek indazu
 hain ekintzaren lorpena.

Bizitza dogu Gorbeia mendi,
handik zerua bertan da,
Arraba landa leunaz ostean
estunak eta aldapa,
baina garaian kurutza dago
ibilaldiko helmuga:
hagaitik noa paradisuko
atera pozez kantuka.

I

JESUKRISTOREN PASIOA

*“Bietatik zein askatzea nahi dozue,
Barrabas ala Jesus, Kristo deritxona?”*

(Mt. 27, 17)

(Bertsolarien doinura abestu eta antzekizunez erakutsi ahal izateko eran taxutua: Ebanjelari bik kontatua eta gainerako pertsonaiek antzeztua. Ebanjelari edo pertsonai bakoitzak doinu bereziak izango dauz eta azkeneraino bereari eutsiko. Ebanjelarien sailean beste pertsonaien testorik agertzen denean, berak bakarrik edo besteen laguntzaz osatu daikez ahapaldiak.)

Ohar: () artean doazen zenbakiak azkenean doazen doinuak adierazten dauez.

I. Jesus Afaltokian

1. Ebanjelariak: (1)

Pasio aurre-arratsaldean
Jesus ta ikaslegoa
Afaltokian batu direla,
mahaian ogi ta ardaoa,
maitasunarren gainezka dago
zerura adi Maisua
arda-ogitan ipinten daula
opariz bere burua.

Jesusek: (2)

Pazko-opari hau ospatzeko
zuekin neunkan gogoa,
gaurtik ez bai-dot edango, ezik
zeru-mahaieko zumoa,
hartu ta edan
ixurtzeko dan
neure odol-ordaingoa.

2. Ebanjelariak: (4)

Salduko ebena jakinik Jaunak
bai ta nor zan saltzailea,
Judas gaueko ilunperantz zan,
Jesus ondora ikasleak.
Azken agurrez batasun-hitzak
eta maitasun-legea
emonez, Bera doan tokira
jarrain ezina daukela.



Pedrok: (3)

Zergatik, Jauna, ezin dautsugu
 ondotik zuri jarraitu,
 bizia bera emoteraino
 hemen naukazu ni gertu,
 besteak izten
 zaituenarren,
 ukatuko ez bai-zaitut.

Jesusek: (2)

Zuk ni ukatu baino lehenago,
 Pedro, oilarrak ezetz jo,
 zuek guztiok nitaz gaur bertan
 jauspide zaree izango,
 artzaina jota,
 ardiak loka
 ibili ohi direlako.

II. Jesus Sanedrinean

1. Ebanjelariak: (1)

Batek hil behar ebala-eta,
herriaren onerako
batzarrekoek ebatsiz eben
agindu Jesus hilteko,
zarata barik, ahal dala gauez,
herriak jakin orduko,
Pazkoazkoa bake santuan
igaro ahal izateko.

Judasek: (5)

Eskura Jesus emotekotan,
zer daustazue eskeintzen,
diru-tratu hau gure onura
handiagorako daiten?
Mirari batez
etsaia artez
Harek azpira legiken.

III. Jesus Getsemanin

2. Ebanjelariak: (4)

Getsemaniko iluntze-pean
iretargia dan betez,
Jesus nekeak larritzenago
Aitari deika da ahozpez.

Bakarrik dago, gaubelariak
 lotan hirukoitz ikasle,
 otoitz aldian zuhur egoteko
 agindua jake neke.

Jesusek: (2)

Aita, kaliza hau edan gabe
 ahal bada igaro, beioa,
 halan be, nire gogoa barik,
 ein bedi zure asmoa:
 gogoz bai gertu,
 haragiz lertu
 nagotzu esanekoa.

Judasek: (5)

Kontuz ibili gerizatsuan,
 hartu argiak ta neurri,
 ezaupidetzat har egizue,
 ez dakizuen itzuri:
 nori mosua
 hari eskua
 ahal daiozuen ezarri.

Jesusek: (2)

Lapur bila lez, ezpataz eta
 makilez zaree etorri,
 ilunpekoen honeik orduok
 aukerakoak igarriz.
 Judas laguna,
 halako munaz
 dozu Maisua salgarri?

IV. Jesus Sanedranean

1. Ebanjelariak: (1)

Eskuak lotu, Jesus nausien
batzar erdira daroe,
idazlariak, herriko zaharrek
nasai itaundu deioen.
Jesus isilik, abadeburu
Kaifasek ahalik beroen
galdetzen dautso bai ta Jesusek
zinez ihardesten dautsoe.

Kaifasek eta Jesusek: (3)

— Jaungoiko bizi-izenean, ba,
esan Mesias zeu zaren.
— Zeuk dinozu ta Gizasemea
Jainko Ahalguztidunaren
eskumaldean,
hodei gainean
zeuk ikusiko etorten.

2. Ebanjelariak: (4)

Jantzi-urratuz, birao egozten
dautso Kaifasek Jesusi,
beste gaberik uste dabela
heriotzea merezi.
Orduan txuak, ukabilkadak
Jesusen kontra dira hasi
errukirik ez euren usteko
itxuradun Mesiasi.

1. *Ebanjelariak: (1)*

Gaueko otzak ozkirrituak
 sutondora ekarrazan,
 eurekin Pedro berotzen zala
 Maisuaren lorratzean.
 Hortik hemetik Pedro salatzen
 abotsen bat agertu zan,
 Pedro ausarta estutzeraino
 haren zemaian burrundan.

Mirabeak eta Pedrok: (5)

— Ikusten danez, zeure berbetak
 galileartzat zaitunaz
 gero, hurrean zara zeu ere
 horren jarraile kutuna.

— Jainkoagaitik
 ez dodala nik
 gizon hori ezaguna!

2. *Ebanjelariak: (4)*

Oilarrak jota, igarokeran
 begitzen dautso Jesusek,
 oroitzuz Pedrok, kanpora urtenda
 negarbera da damuez.
 Artean Judas, ohartuz Jesus
 herio-epaitu juduek,
 diruak jaurtiz, gogoia dauka
 etsipenaren debruek.

V. Jesus Pretorioan

1. Ebanjelariak: (1)

Goizean goizik sanedritarrak,
Jesus epaitu ondoren,
inor hilterik ez ebela-ta,
Pilatogana daroe.
Pretorak Jesus dakus errudun
joten dabela juduek
eta Pilato harritzeraino,
Harek isilik irauen.

Pilatok eta Jesusek: (5)

— Ez ete dozu entzuten honeik
zure kontra dinoena?
Ez al dakizu askatzeko ta
epaitzeko be nazena?
— Eskubiderik
ez zendun, ezik
goitik eskura emana.

2. Ebanjelariak: (4)

Pazko jaietan hobendunen bat
jarein-ohitura ebela,
ba zan Barrabas euron artean
zarraparretan heraila.
Haren ondoan ustez Pilatok
Jesus askatu eikela,
bietatik bat zein eskatuko
dabil epaile motela.

Pilato eta juduek: (5)

Ez daukadanez, ez eta Herodek
 auzirik gizon honegaz,
 zein nahi dozue gaur askatzea
 Jesus hau ala Barrabas?
 — Barrabas guri
 ta Jesus hori
 josi kurutzan untzekaz.

Pilatok eta juduek: (5)

— Zer egiteko, bada, Mesias
 deitzen dozuen Jesusi?
 — Barrabas itzi libre ta Jesus
 hobe kurutzean josi!
 — Zergaitik, bada,
 ze auzi dauka?
 — Emon kurutzera hori!

1. Ebanjelariak: (1)

Orduan Jesus zigor-astindu,
 errukarriro dakartse,
 odoltsu baten eta buruan
 irri-koroitzat arantze.
 Hala ta guzti, Pilatok ez dau
 juduekin aurreratzen
 eta burua zurituz, eurai
 hilteko Jesus damotse.

Pilatok eta juduek: (5)

— Garbi nago ni odol honetan,
beraz, hor zeuok ikusi.

— Jainko-Semea dala esan dau,
herihotza dau merezi.

Ixur daitela

bere odola

geure buruei egotziz.

VI. Jesus Kalbario-bidean

2. Ebanjelariak: (4)

Kaleak estu, jendetza urru,
irainez eta zizpuruz,

Pretoriotik Kalbariora
kurutzepean da Jesus.

Amak hurretik t'emakumeak
darraitsoe sentimentuz:

indarrak kontra izanez gero,
ahulenak zelan erantzun?

Jesusek: (2)


Jerusalengo alabak, nitaz
ez izan horren erruki,

egin bai negar zeuon buru ta
zeuon seme-alabegaitik:

amatasunak,

bada, saminak

izan ohi ditu gertutik.



VII. Jesus Kurutzean

1. Ebanjelariak: (1)

Zireneoren laguntzaz Jesus
 Kalbariora da heldu,
 biluztu eta besoak zabal,
 habe gaina dau etzangu.
 Mailuka untzez oinak, eskuak
 alderik alde zulatuz,
 untzeak eta gure hobenak
 dabe Jauna kurutzatu.

2. *Ebanjelariak eta besteak: (4)*

Farisearrek marmar egien:

“Horra besteak salbauta,
bere burua ezin daikena,
sikeran daigun sinistra.”

Artean Jesus otoitzez dago:

“Parkatu eiezu, Aita,
egin daroen gaiztaginaren
zentzunik be ez dauke-ta.”

1. *Ebanjelariak: (1)*

Gaizkile bitzuk dagitse lagun

kurutze-aldamenetan,

bata irainez, bestea damuz

herio-auziko neketan.

Errugabea errudunekin

oratu ohi da sarritan,

gaizkile bata lekuko dala

aitormena ezpainetan:

Lapurrak eta Jesusek: (2)

— Honek gaizkirik ez jok eginda,

guk barriz, zorrak ordaindu...

Zure erreinuan sartzerakoan,

Jauna, gomutau nagizu.

— Zeru goietan

neugaz gaur bertan

izango zara, kontuizu.

2. *Ebanjelariak eta Jesusek: (4)*

Gurutze-aurrean han ziran Ama,
 Madalena ta besteak,
 ikasleetan bakarrik dakus
 Jöan “ebangelistea”,
 t’halan dinotso Amaz berari:
 “Seme, hor dozu amea”,
 eta jarraian Amari barriz:
 “andre, hor zure semea.”

1. *Ebanjelariak eta Jesusek: (1)*

Eguerdirantza hodei ilunak
 argia eban galazo,
 Zeruak berak ezikusia
 Semeari bai-dagitso.
 “Zergaitik, Jainko, —dino Jesusek—
 izten nozu hemen gaiso?”
 Baina zeruak itxita dagoz
 t’erantzunik ez dau jaso.

2. *Ebanjelariak eta besteak: (4)*

Jesusek dana egintzat dakus:
 “Dana bete da” esanaz
 ta gero: “Zure eskutan, Aita,
 izten dot nire arima”.
 Jesusek azken arnasa emonez,
 dardaratzen lur barrena,
 gudalburuak aitortzeraino:
 “Jainko-seme zan ben-benaz”.

VIII. Jesus Hilobi-inguruan

1. Ebanjelariak: (1)

Iluntzez Jose Arimateak
Jesus hilotza dau jatxi,
izaran bildu, hobi barrian
gantzugarriez ehortzi.
Hiru egunez zaindu egien,
agintarien goraintziz,
gudari batzuk hobia siluz
beilatzen eben zuhurtziz.

2. Ebanjelariak eta aingeruak: (4)

Igande goizez Mari Madalen
t'andre laguna beragaz,
hobia ikusten doazelarik,
aingerua jaken berbaz:
"Ez dago hemen, biztua da-ta,
ikusi, joan, iragar,
irakasleen aurretik dala
Maisua Galilearantz."

II

PASIO KANTATEGIA

*“Guk osterera, Kristo Kurutzatua
iragarten dogu.”
(1 Kor. 1, 23)*

(Abestiok A. Paskual Barturen pasiotarrak eginiko
doinu barrietara abestekoak dira.)

I

Kurutzatua (12)

1. Argi-Semea eta
argi ber*a* hiltean,
lurrikaraz lurdia,
eguzkik arpegia
ezkutatu eban. (bis)
2. Burruk*a* izugarria
hantxe gertatu zan,
Bizitza ta Herio
alkarren arerio
bat erasotean.
3. Bizitza kurutzatu
hila izan zenean,
erori zan Herio
t'ez dauka hagaitio
nausitzeko indar.
4. Bizitza nausitu zan
tinko kurutzean,
pekatuen ordaina,
ilunpeko koraina,
kitu*a* izan bai-zan.

II

SEMEA EMOTERAINO (15)
MAITE BAI-GINDUZAN,
BAI MAITE GINDUZALA
AITA JAUNGOIKOAK.

1. Izan bedi onetsia
 Jesukristoren Aita,
 Gogo Deunaren graziaz
 bedeinkatu gaitu-ta,
 mundua sortu aurretik
 emonik gu hautak.
2. Jesukristoren odolaz
 lortu dausku erospen,
 Seme honengan guztiok
 semetzako izanez,
 Jainkoarean aintzarako
 bizi ahal gaitezen.
3. Graziaren uharia
 eskuzabal ixuriz,
 Jainko onberak bai-dausku
 pekatua asketsi,
 hastetik azkeneraino
 osasun jaretsiz.
4. Halako misterioa
 emon dausku aditzen,
 garaia etorkenean
 danok sendi bat-baten
 zeru-lurretan guztia
 Kristogan bil daiten.

III

**HONA NIRE GORPUTZA (16)
GURUTZERA EMANA,
HONA NIRE ODOLA
IXURIKO DENA,
ZUEN EROS-SARIKO
PEKATU-ORDAINA
BAI-DOZUE JANARI
T'EDARI BIKAINA.**



1. Gizakia ez da ogiaz bakarrik
bizitzeko adina,
beraz, Jainko-Hitza nire haragian
zuentzat ogi da.

2. Zuen gurasoek, nahiz mana txastatu,
hilkor izan ziran,
nire haragia jaten dauen oro
biziko benetan.
3. Kurutzatuaren oroigarri zara
zu, Eukaristia,
Jesussek gugaitik gorputz-odolean
emon-Afaria.

IV

HONA NIRE GORPUTZA (17)
KURUTZERA EMANA,
HONA NIRE ODOLA
IXURIKO DANA.

1. Nekaldiak eihoko
Jesusen garia
ogi da guretzako
Eukaristi-mahaiian.
2. Kurutze-dolarean
lehertu-mahatsa,
Kristoren odola da
edari guretzat.
3. Kristoren kurutzari
jakona faltatzen
geugan pasiokide
bai-dogu jasaten.

V

BAI MAITE GINDUZALA (18)
AITA JAUNGOIKOAK,
KRISTOGAN OINORDEKO
EGIN BAI-GINDUZAN.

1. Kristoren Nekaldia da guretzat
Jainko-maitasunaren agerkaia.
Zer egiken besterik t'ez dau egin
gugan bere asmoa eiten doia?
2. Inork ez dau emoten kurutzera
semèrik maiteena oparitan,
beste seme-alaben ordezkoa
beragan hartu ezik bizkarrean.
3. Erre-oparirik ez zendun nahi,
baina gorputz egokiz nozu jantzi.
Hona ni hemen gertu, ene Aita,
zure borondatea egin dadin.

VI

BIZIA EMOTERAINO (19)
MAITE GAITU KRISTOK,
HALAKO MAITASUNIK
EZ DAU IZAN INORK.

1. Kristogan bateatu
izatez garenok
Haregaz bat dagigu
heriotzaraino,
Berarekin batera
zoria daneko,
berbiztu gaizan Jaunak
bere aintzarako.

2. Haren heriotzean
bat eginez gero,
Berarekin batera
gara berbiztuko,
gizaki zaharra hilik,
barria dan Kristok
bere aintzara egin
gagizan antzeko.

VII

**BERE BIZIA MAITE DAUENAK, (20)
ONDATU EGINGO,
BAINA BIZIA OPA DAUENAK
BIZIA LORTUKO.**

1. Gari-alea hiltzen ez bada,
bakar da gelditzen,
baina lurrean ehortziz gero,
frutua dakarke.

2. Oldez emoten dot nik bizia,
ez daust inork kentzen,
askoren alde ordain-saria
neuretik dot jartzen.
3. Besoak zabal, haben gora
jaso naiteneko,
besarka baten neugana danak
dodaz ekarriko.
4. Hemengo neke-bidetan nire
jarraile izanok
neure erreinuko partele ere
zaree izango.

VIII

TXIKIOTAKO BATI (17)
EGIN ZEUNTSOENA
NEURI EGINDAKOTZAT
HARTZEN DOT BEN-BENAZ.


1. Noiz ikusi zintugun
egarriz gosetu,
jaten edo edaten
emon ahal geinketsun?
2. Noiz ikusi zintugun
behartsu ta biluz,
geuretik laguntzeko
jantziz edo diruz?

3. Noiz ikusi zintugun
gaiso *ta* espetxean,
zutaz arduratzeko
hako beharrean?
4. Noiz ikusi zintugun
atzerriz baztertu,
onartu izateko
geurean ostatuz?

IX

KRISTO KURUTZATUA, (21)
GURE JAKINDURI,
HAREN MISTERIOAK
GAIZALA INDAR-BARRI.

1. Zorakeria deritxat
munduko jakinduria,
irakurriaz bakarrik
Jesukristoren zauriak.
2. Zorakeria deritxat
munduko zuzenbidea,
dagokigula guztioi
alkarrenak jasatea.
3. Zorakeria deritxat
munduko harrokeria,
Kristok bai-gaitu askatu
izanik pekatariak.



X

BAI MAITE GINDUZALA (19)
JESUSEN BIHOTZAK
BERE AMA EMOTEKO
GUZTIOI AMATZAT.

1. Hilturrean Jesusek
hiltzatu egola,
Maria, bere ama
gizakioi opaz,
Ebaren ume baino
zori hobekoak
egin ginduzan bere
senitartekoak.
2. Amari begiturik,
Joan apostoluaz:
“Andre, —dinotso— horra
hor zure semea.

Seme —dinotso Joani—
 horra zure ama”
 t’harrezkero berean
 hartzen dau Maria.

XI

JESUS ORDEZ HARTZEKO (19) **GU BERE UMETZAT,** **BAI MAITE GAITUELA** **AMAREN BIHOTZAK.**

1. Ama errukiorra,
 onera gagizuz
 kurutzaren argia
 itzal ez dagigun,
 santutasun asmoa
 ongian azalduz,
 Jainko-itxaropena
 dagigun helburu.
2. Jesus kurutzatua
 gogoan izanik,
 iguzu gaizkiari
 bide egin barik,
 Jainko seme-alaben
 aurpegia argi,
 Haren aintza danetan
 dagigun jazarri.

3. Haren Hitza daigula
argibide hartu,
argi-seme-alaben
burua agertu,
munduko erratuak
daiguzan arteztu,
zatoz zeu bidelagun,
eskua luzatu.

XII

ANDRE MARIA ZUTIK (19)
KURUTZE AURREAN,
MINDUEN SERBITZARI
GEU BE IZAN GAITEZAN.

1. Kurutzaren oinetan
Jesusek emona,
neke-bidetan lagun
gozo zaituguna,
iguzu Jainkoaren
deidarra entzunaz,
zinez bete daigula
Jesusen esana.
2. Erakutsi eiguzu
seme-alabak lez,
konfiantza osoaz
Aitari eskatzen,
eta kurutzepean
zutunik egonez,
gaurko kurutzatuen
sortak eroaten.

XIII

KRISTOREN ZAURIAK (20)
OSATU BAI-GAITU,
HURKOARENAK GUK
DAIGUZAN GARBITU.

1. Kurutza kristauon ezaugarri,
 pasiotarron eskeintza:
 Jainkoa jakula iragarri
 pobreen arteko bizitzan.
2. Gaisoen usteak amaitzean,
 itxaropena kurutza:
 Jesusen Pasio aintzatsuan
 Berbizkundeko azantza.
3. Munduak baztertu-gizakia
 Jaungoiko odolaz neurtzen da,
 Kristoren kurutze-eraginak
 egi*a* azaldu dausku-ta.
4. Munduko urreak ez bekigu
 metalizatu bihotza,
 eukiek ezetsi-errukia
 bitxia bai-da guretzat.

XIV

KRISTO KURUTZATUA (23)
GURE JAKINDURI,
HAREN MISTERIOAK
GAIZALA INDAR-BARRI.

1. Kristo gurutzatu gure mezu,
misteriozko salbamen,
aldion argitua izan jaku,
berak garoaz pozarren.
2. Kurutze-mezua galduentzat
zorakeria bada be,
Jaungoiko-indarra da guretzat,
itxaro dogun ondare.
3. Gizaki-jakintza baino hobe
da Jainko-zorakeria,
giza indar baino areago
Jainkoaren ahuleria.
4. Hain ahulak garela jaku eman
otsegitea barria,
munduak gugandik jakin daian
zorionaren handia.
5. Hitz eder gaberik, gogo onaz
darraigu bizi-eskola,
gizaki-jakintza barik, Jauna
bera Maisua dogula.

XV

GEURE HARAGIAN (24)
DOGUZ JASAN BEHAR
OSATZEKO DIREN
KRISTOREN NEKEAK.

1. Kristoren nekeak
pobre egin gaitu,
bere uharitik
ondasun gabea
aberatz dagigun.
2. Kristoren kurutzak,
haragi hiltzatu,
bizitza barriko
guraso gaitezen,
aske egin gaitu.
3. Kristoren kurutzak
menpeko ein gaitu,
bere askatasunaz
ardi deslaituak
daiguzan askatu.

XVI

**ESKERRAK ZURI, JESUS, (25)
GUGAITIK BIZIA
ESKEINI ZENDULAKO
KURUTZ-OPARIAN.**

1. Haren gorputza den
Eleizaren alde
eroan beharrek
pozarazten naue.
2. Jainkoak egin nau
Eleiz-serbitzari,
gogoz emoteko
Barriona danei.
3. Eskutu egoen
hain harrigarria,
santu guztientzat
bai-da agiria.
4. Hau dogu barria:
Kristoren jakintza,
Haren eredura
osatu-bizitza.

XVII

ZORIONEKO ERRUA, (26)
HORREN ZORIA ORDETAN
MEREZI IZAN DEUSKU JAINKOAK
EROSLE DOGUN KRISTOGAN.

1. Bere antzera sortua
 gizakia, har-emea,
 hemen lurrean gorde egian
 Jainkoaren irudia.
2. "Lurra landu ta jaurritu
 landaredi, aberetza,
 uhalduz bete egizuz zeure
 seme-alabez baratza".
3. Jainko-asmoa ezetsiz,
 hagazkoa dau apurtzen,
 Jainkoa aina giza kumeek
 aske-gurea bai-eben.
4. Pekatu-pean jausi dan
 gizakia salbatzekoz,
 errukiz bere Semea dautso
 bidaltzen goitik Jaungoikok.
5. Gizadia herioz jo,
 izadia kutsuz gaiso,
 galdu dogula, josirik dager
 kurutzean Jesukristo.

6. Gizadiaren etsian
Kristok bizkunde argitan
irauli dausku lehengo zoria
giza barri, lur barritan.

XVIII

MAITE BEHAR ZAITUGU (27, 28)
KURUTZEKO JESUS,
BIZIA EMOTERAINO
MAITE BAI-GAITUZU.

Goazen guztiok kemen biziaz
dagokigun burrukara,
sinismenaren sorgu t'helburu
Kristo geuregan dogula:
atsegin ordeztu, kurutza eban
jaso, lotsak ezetsita.

Kurutzeraino esanekoa
egin zan Kristo gugaitik.
Orain Aitagaz errege dago
eskumaldean jarririk,
Maisua aurretik garai dogula
bere ekintzan ez etsi.

III

MISIO-KURUTZEAREN OSPAKIZUNA

*“Kurutze-bitza galtzen direnentzat
zorakeria da, salbatzen direnentzat,
Jaungoikoaren indarra”.*
(1 Kor. 1, 18)

**Hain zuzen ere, aurtan ospatzen da pasiotarrek
Arratzun emon eben misinoaren ehunurtegarrena.
(1895-1995)**

(Gure gaurko gizartea bertsolari biren artean aztertu eta
eztabaidatu ahal izateko eran aurkeztua.)

I

1. *Gartxu* (6)


Harrigarrizko gertakaria
jazo da gure herrian
burdin-kurtzea aurkitu dabe
erdi estaldu sasian,
zaharrez ehun urtekoa,
ertiz moldera urtua,
hartu ei dabe kontuan,
museu baten salduz gero,
zenbat emongo leukean.

2. *Lartxu*

Lehendik ba gendun kurutze nahiko
ta bat gehiago diatorku,
harrizko hareik gitxi baziran,
burdinezkoa da hau sortu.
Dagoneko ez dagoz
askorako bizkarrok,
hobe nekeak laburtu,
astunak barik, eroateko
lagunak behar bai-doguz.

3. *Gartxu*

Gure astunak kurutze baten
eroan ebazan Jaunak,
burdinez josi, bilusik hartu
eban kurutze astunak.
Eguneko kurutzen
eroale argitzen



Arratzuko Misino-kurutzea (1895-1995)

hor non daukagun laguna,
gure nekeak izan dagien
saria eta sentzuna.

4. *Lartxu*

Saririk ostaz, kurutzak asko,
ez da heltzen alogurik,
anaiak alkar hartu beharrez,
narrutzen gara gogotik.
Hemen txakur argala
zorristo *da* alagala,
politika labe gori,
gure kurutzak eroateko
ez zan sortuko Kristorik.

II

1. *Gartxu* (7)

Kriston kurutza jarri dauskue,
burdinezkoa gainera,
nork esango dau Kristok kurutzak
egiazala aldera,
zurezkoz landa, burdinazkoa
emon bajaku, aurrera,
bihotz gogorren Burdin Haroa (bis)
bai-da apurtu beharra.

2. *Lartxu*

Ehun urte dira horixe bera
fraileak esan ebalá:
“bide gaiztotik itzul zaiteze,
damurik hoben mortala”,
esanak ahaztu, frutuak doguz
bakanak eta maxkalak
zure sermoiak ez begi urten (bis)
frailearenak bezala.

3. *Gartxu*

Hona kurutze burdinezkoa
 ehun urtetako gomuta,
 harria hauskor, zura ustelkor
 geure gogoaz lez bai-da,
 iraupenarren, zeu zara, izan,
 sinboloetan aparta,
 herri-bidetan zeure argira (bis)
 bakea daigun gaur hauta.

4. *Lartxu*

Ez dakik zein den eskeintzen dozun
 bake-kurutzatu hori,
 kurutzez dakust kanposantua,
 ez dot nahi hango bakerik.
 Jaungoikoarren makur nadila,
 eskatzen daustazu neuri?
 Burruka zale banaz ni, baina (bis)
 ez dot nahi kurutzadarik.

III

1. *Gartxu (8)*

Kurutzearen zentzunik ezaz
 joakuz gauzak aldrebes,
 politikea alkarren kontra
 anaiarte hain trabes.
 Kristok kurutzaz apurtu joan
 —dana maitasun, parkamen—
 arerioen arteko grinak,
 alkarri eskuak emanaz.

2. *Lartxu*

Burdin-kurutzaz neu markatzeko
abere basa niagok ni,
gure presoen kateak-edo
apurtzekotan ziur bai...,
baina halako dotrina latzaz
ahokoa opa neuri?
Nahiago joat neure senera
aske-bideari eutsi.

3. *Gartxu*

Giza loturen kate guztiak
urtutzeko lain laberik
bilatzen badok, ezetz aurkitu
Kriston bihotzalangorik.
Heure senera, burdinak burdin,
kateak kate dakarkik
ta herri librea gura dokala
basa senera eraiki?

4. *Lartxu*

Bilboko gure "Altos Hornoak"
desegitera badoaz,
Euskal Herria osorik sutu
egingo dot neure suaz,
herriak ez dau parkatzen daukan
amorruen amorruez,
hau konpontzeko inor badago,
betor kurutza Kristogaz.

IV

1. *Gartxu* (9)

Kurutze santuaren
 seinaleagaitik
 zaindu gagizuz, Jainko,
 arerioengandik,
 Kriston agintzariak
 daiguzan jaretsi,
 senda gure fedea,
 ez daigula etsi.

2. *Lartxu*

Burdin-gurutz baltzizka
 n̄hiz pinturaz zuri,
 zure itzala hemen
 dakusat bakarti,
 errukiaz n̄hi gozuz
 desarmatu itzi,
 zelan askatu holan
 gure ama Euzkadi?

3. *Gartxu*

Kurutze bakegile,
 gure ararteko,
 besoetan daukazu
 gizaki ta Jainko.
 Zeru-lurren bakea
 zeuregan bai-dago,
 euskaldunok zeuk ezik,
 nork dauz alkartuko?

4. *Lartxu*

Begiz begi, ortzez ortz
da ordainbidea,
itzuli izan ezik
kendu dauskuena.
Burdin-kurutzaz egin
iskilu hobeia,
ezin osa bestelan
nahi dogun bakea.

V

1. *Gartxu (10)*

Kurutze hau harrian
dago ezarria,
kristauen funtsak ere
Kristo oinarria.
Hortik ihes eginaz,
agur lokarria:
odol sena urrunduz, (bis)
hur odolkeria.

2. *Lartxu*

Odola aitatu dok,
Kainen errua,
harrezkero nork bare
haren *uhin* beroa?
Nor hasi zan apurtzen
gure teilatua?
Matraileko ordetan (bis)
matrail betekoa.

3. *Gartxu*

Golpe-golpeka doaz
 aukerak artean,
 historiak ez gaitu
 senera eraman.
 Debaluatu dokan
 Kristoa ahotan
 barik, behar henduke (bis)
 euki bihotzean.

4. *Lartxu*

Ez dot aitortzen legez
 kristinau nazela,
 hala banintz, nabilke
 santuak bezela,
 baina hako lapurrak
 narrutzen gaitula,
 eleizea baino dot (bis)
 gurago kartzela.

VI

1. *Gartxu (6)*

Espetxeratu dagozan gure
 seme-alaben nekea
 bai-da Kristoren Pasionaren
 oraingo gure partea,
 jasanle ala borrero
 ihardungo dogu gero,
 hor diagok, Lartxu, untzea:
 Kristok untzatu hor jarraitzeko
 norbait dok untzegilea.



2. Lartxu

Dotrinan ziur ez nagonarren
ba diakiat gauzatxo bat:
inork bultzatu barik, gogotik
jo joan Kristok haberat.
Eusko gudari danak
buruz diakik esana,
nahiz kartzelan, nahiz handik at,
gudea guda dogun artean,
ez har burruka baketzat.

3. Gartxu

Gure gaiztagin larriaz zoan
kurutzatu Kristo Jauna,
hamaika erru ordaintzearren,

derrigortu Maitasunak.
 Gogoz bai, ez gustora
 hartu joan lepora
 hako kurutze astuna,
 geuk beharrik ez izatekotan,
 ez joan merezi pena.

4. *Lartxu*

Hak maitasunaz bizia emonda
 bai-ginduzan liberatu,
 guk amorruez bizi-bizian
 nahi dogu Euskadi askatu.
 Eurak dozak borrero,
 neu ausaz odol bero:
 hori dok nire pekatu,
 hartu-irainak eta ukoak
 ez dodazala parkatu.

VII

1. *Gartxu (9)*

Aitaren esaneko,
 kurutza jasanez,
 gizakioi dakarsku
 Jesusek askapen.
 Askatasun bilaka
 t'erabat katepe
 bide erratu gabilz
 eredutik ate.

2. *Lartxu*

Independentzia bai
guk behar doguna,
ez dakit kurutza den
horretan laguna.
Barruka barik ez da
lortuko doguna,
hagaitik burrukea
nahi dau euskaldunak.

3. *Gartxu*

Independentzia bai,
zertarako baina?
Gazteak libre ei dira
aspalditik hona.
Gurasoei ez dautse
nahiko begiruna,
bai barriz, gustagarri
etxeko ondasuna.

4. *Lartxu*

Lar mizkatuez gero,
kateak nork hautsi?
Ez gizatasun eta
ez independentzi.
Askapenik ezean,
bai burueritsi:
ederto bizitea
da askoren min bizi.

VIII

1. *Gartxu* (6)

Bizia galtzen dabenak gorde,
 gordeleak barriz, galdu,
 azken batean kurutza dogu
 itxaropenak bidaldu,
 ez dakit zer daukeen
 hilerriak edertzen
 kurutzek edo lauburuk.
 Burruka danen ostean bera
 dalako arma seguru.

2. *Lartxu*

Bizitzan ez dot ikusi gura
 herria hilerri bihurtu,
 gero bardina izango ausaz
 zerua edo inpernu.
 Hilez gero saldeaz
 edo bardin sardeaz
 gu nonbaitera bidaldu,
 hilen sinbolo horreik direnez
 bizientzat edergailu.

3. *Gartxu*

“Kriston burruka” edo “Kristoren
 burruka” ez dok bardina,
 zintzotasuna markatzen diatork,
 zindoa den *ala* aizuna.
 Jainkotasuna ezpada,
 gizatasun argalak
 epaituko jok gizona:
 biak jauskuek aldarrikatzen
 kurutzetik salapena.

4. *Lartxu*

Kurutza eta orma artean
estika nahiez habilkrit,
hitzaren aho biko ezpataz
ez niri egin zemairik.
Hitzaren jokuetan
hortxe nok deabrutan
abila eta malizi,
konbertitzeko beharko joat
Gartxu, mirari hoberik.

IX

1. *Lartxu + Gartxu (11)*

- Alperrik *da* esatea
“ni ez naz errudun”.
- Gaurko kurutzatuez
behar dot erantzun.
- Danok gara, izatez,
zordun-hartzekodun.
- Auzi hontatik libre
ez naiteke urrun.

- 2. — Langabezian nago,
ondo kurutzatu.
- Nor da zure penaren
Pontzio Pilatu?
- Aberatzek pobreei
ez gura lagundu.
- Ea orain ze Kristok
askatuko zaitun...

3. — Zer egin geinke, beraz,
minok baretzeko?
— Maitasunaz lagundu
untzez gabetzeko.
— Maitasuna *ala* ekintza
izango *da* hobeto?
— Maitasuna ez dago
geldorik egundo.
4. — Preso eta gaisoek
badauke itxaropen?
— “Katez t’etxun nengola,
zentozan *ni* ikusten”.
— Ez bisitaz bakarrik,
bai gogo harrotzen.
— “Harei egin-laguntza
neuri emon zeunsten”.

X

Kurutzea eta sasiak

1. Herriak (12)

Sasitik jasoriko
kurutze *ah*aztu hori,
zeure burdinaz nire
bihotza urtu zeinke
damuaren goriz. (bis)

2. Sasiak dira nire
bizitza zitela,
gurutzaren uharrak
neu nazen uharbera
argi dinoela.
3. Bizi-arantze-pean
ahaztuta euki zaitut
neure salbamenaren
seinu ta argia zaren
gurutze maitetsu.
4. Sasiz neure bihotza
garbituez gero,
zu nire salbatzaile,
ni mesede-hartzaile
aitortzen dot bero.

XI

Kurutzea eta zauriak

1. Herriak: (10)

Kurutzeak ezertxo
ez badeust esaten,
hor Kristoren zauriak
argi dizdiratzen.
Bertan sartu artean
begira dagozen
ate zabalak doguz (bis)
maite-itxaropen.

-
2. Kurutzaren besoak,
zura edo burdin,
Kristoren besarkada
samur eta mamin.
Gogor dana beragan
gugaitik desegin
t'herio dau zapaldu, (bis)
gaitezen jaregin.
3. Kurutzaren besoak
jo lau haizetara
goitik hegalez eta
zerutik lurrera.
Zeugan jaso zanetik
opari bakarra,
egarri baten goaz (bis)
iturri hortara.

IV

GAURKO KURUTZATUAK

*“Beragaz hilten bagara,
bizi be beragaz egingo gara.”
(2 Tim. 1, 11)*

(Gogoz ausnartzeko olerkiak.)

I

Kurutzemendi (2)

1. Santi Kurutze-aldapan gora
erromes doa Euskadi
habe astuna lepoan hartuz,
ahoan otoitza eskari:
Parkatu, Jauna,
hauxe da lana,
begitu zure herriari.
2. Euskal Herria dogun menditsu!
Haren troka ta malkarrak...
Zuzenbidea egin-nekeza,
harkaitzak bihotz gogorrak,
mendi bakoitzak
bere kurutzak
t'ebas-bideak okerrak.
3. Herio-epai ezbaigabea
biar, etzi edonori,
odol-ixurte handia behar
Euskadi daiten lur gorri.
Gaur haregaitik,
bihar neugaitik
arma-eraso baltz hori.
4. Epai latzena emon zan legez,
kurutze astuna zor jako,
diru miloek ostaz leukeen
odol saldua trukauko,
Kurutzemendi,
euskaldun sendi,
benetan zorigaiztoko!



5. Hogeitamarrak miloitan dira
 urregorrizko kurutza,
 egurra dohan, untzea urru,
 urrun lanaren ardatza,
 dirukeriak,
 indarkeriak
 dauke pobreen estratza.

6. Kurutza dago tente, dindilik
gaur kurutzatu gizona,
aukeratuko ordu berean
emongo dautse azkena:
egunkariak,
erostariak,
erakus, oi, zuen pena.

7. Aitzurraz lurrik mardulenean
egin dautsoe hobia,
metrailaz ondo josi-lurrari,
ebatsi dautse bizia.
Metraila, bihur
haiteke aitzur
landuz lurraren zauria.

8. Bakea barik, guda ereinez,
lur gorrian zer erneko?
Maite baleue, hazi hobeez
Amalur eben ereingo:
bidegabeak
frutu berdeak
bai-dakarz zigorrerako.

9. Bake-egarriz azken arnasa
emoterako orduan,
ez negar, otoi, zinez parkatu,
zagoz, arreba, bakean,
ez bai-dakie
oker dagien
gaurko Kristo erailtean.

II

Gaitza hor dago: gudea

Samina dok heriotza
gudu-erreportaritzan,
itxura barik, egia dinok
kamara horren mintz beltzan.

Gaur Kristoren agonia
horren hurretik sentiak
nekaldikide somatu joat
hire aiene larria.

Hire azken arnasotsa
zeruari diagok hoska.

Armen zitala salatzen
frentean ausart henbilen,
tiroak hartu, heure odola
dok orain doble salapen.


Ohitu neukazan begiok,
ikusiarren heriotz,
azken arnasok entzunaz barriz,
bihotz-ikutu egin nok.

Hire azken arnasotsa
zeruari diagok hoska.

III

Gaitza hor dago: gosea (4)

Migel Anjelen Pietatea
taxu baltzetan dagerku
besoetako ume ahuldua
jada hilian gosetu.
Ama kupidaz beterik dago,
baina bularrak ahortu,
triste begiak etsipen zori:
hau solidaridade estu!



Agoniako ume-deidarrak
 ikui bai-ditu bihotzak,
 altzokada ogi bidaldu dautso
 amandre Europa aberatsak,
 azal ornidu iraun dagian
 Etiopiako baltzak
 t'arteak galdu Telebistatik
 halako manera latzak.

IV

Gaitza ta itxaropena: Eirene

Txoria zan dantzan,
 saskian abila,
 kirolak ebazan
 maite neskatilak.

Eirene 'bakea'
 gora nahiez zala,
 oinak ostu dautsoz
 metraila zitalak.

Ai neskattoaren
 ameseten pila!
 Kiroletan galdu
 dau Irene Villak...

Galtza-barreneko
 oin-dantzarik eza
 gurdittoak ahal
 baleutsa erresta..!

Oinekin ezinez,
orain irribarraz
Irenek gudari
golak sartzen dautsaz.

V

*Gaitza hor da: **abortoa***

Bortxatu baten aldeko
manifestapena,
neskeak izan dagian
abortu-baimena.

Neskato hori birritan
nahi daue bortxatu,
lehen kalteak bigarrena
ahal baileuan santu.

Heroden epaikundean
ahulenak dau galdu:
hamairu asteko fetoak
deretxorik ez du...

Neskatoaren pasea
Ingiltarrarako:
bi joan ziran joatez
bata itzultzeko.

VI

Hor deiadarra: **Kurutzatuagan**

Kurutzatuak geugan salatzen
munduko injustizia,
gaurko gudutan umeei jaken
ezarten zori tristea.

Kurutzatuak Pilato, Judas,
gaurko Herodes, besteak...
salatzen ditu t'adierazoten
guri parkamen-bidea.

Kurutzatuak luxoak, modak,
—bera dagon biluziaz...—
salatzen dauskuz, gaur gizartean
dagozan diferentziak.

Kurutzatuak itxurakeri,
gure idolo kutunak
salatzen dauskuz, bera bakarrik
bai-da erosi gaituna.

Kurutzatuak maitez salatzen
bai-dau gure familia,
kurutzatua berez dalako
guk behar-misiolaria.

VII

Pasiokideak (13)

Pedrori begiratu
zeuntsonez maitale,
zure begioz, Jesus,
begitu neuri be
ukapenak negartzen
lotsatu ez naiten,
zure jarraipenean
bai zintzo izaten.

Jesus kurutzepean
doala nekatu,
Jerusalengo alabak
minez dira heldu:
sentipenen arian
ekintzari lotu,
ezinduei laguntzen
naitela lehiatu.

Jesus kurutzatua
ikusiaz soilik,
aldatu da lapurra
onera gaiztotik:
Zure Pasinoaren
gomutaz naite ni
onbideratu neure
gaztaginetatik.

Joan Ebanjelaria,
 Pasio-lekuko,
 kurutzaren ondoan
 dirauela zintzo,
 zure maitasunaren
 testigutzan dago:
 Kristoren deia daigun
 zain azkeneraino.

Maria Madalena,
 pekatari zanak,
 kurutzaren oinetan
 dāger bere pena:
 “ez egin pekatu-rik”
 Maisuak esana,
 bete ahal izateko
 noan Jesusgana.

VIII

Horra Jesus kurutzean: gaisoa

Zergaitik itzi nozu, ene Jaun,
 gaisorik, bertanbehera,
 nire sasoian askotxok dauken
 osasunaren ederraz?...

“Begitu eizu Kurutzatua,
 ene alaba ene seme:
 zuk uste dozu nire Semea
 ez nebalā izan hain maite?”



Bada, Jesusen Pasinoari
falta jakozan nekeen
partea dozu, aintzatan ere
zaitezan bere partele.

Maitasun-pruebok onura dozuz
ta beste askoren ongarri,
zure kemena agertu daiten
etsien fede-bizgarri”.

Eskerrak, Jauna, Seme Jesusen
Pasinoaren partele
egin bai-nozu, gero aintzatan
Beragaz naiten errege.

IX

Hor dago epaia: **Kristogan**

Gizakiari bizia kentzen dautsonak
beragan Jainko-irudia dau hiltzen.
Jainko-irudia bortxaz hiltzen dauenak
Jainko-zigorra hurrean mereziren.

Bere Semeari ez baeutson parkatu,
danon onerako zigortu izan baino,
hiltzailek ez beie Jainkoa aztatu,
epaien Epailari etorri daino.



X

*Hor gure arma: **kurutzea***

Ez dogu hil oraindino gaitza,
bai oinperatu bere nausitza.

Gaitza hor dago, gorroto dogu,
Kristoren armaz dagigun lotu.

Askapenean aurrera goaz
itxaroaren hain itxaroaz.

Bake-liturgia ez da isilduko
gaitza Beragaz galdu arteino.

XI

Horra espilua: Kristoren zauriak

Kristoren zauriak ez dira osatuko
munduan negarra atertu dadino.

“Sartu saietz hontan zure eskumuina
ez izan ezkorra, baizik sinistuna”.

“Txikiotako bati eginiko iraina
bai-da neure begien pena samina”.

Kristoren zauriak ez dira itxiko
munduan negarra aterri ez daino.

XII

Gosea ta ogia

Atzo, atzo, atzo,
atzo hil ziran hamar haurtxo:
maitasuna merkatzen badogu,
hilko dira beste asko...

Atzo, atzo, atzo,
atzo hil ziran hamar haurtxo.

Etzi, etzi, etzi
hilko dira beste hemeretzi:
solidaritza gehiago hemen,
geuregan aurkitu ezik.
Etzi, etzi, etzi
hilko dira beste hemeretzi.

Etzi, etzidamu
izan bai-daiteke berandu:
gosekilak ez dabe ogirik
bidaltzen ez badautsegu.
Etzi, etzidamu
izan bai-daiteke berandu.

XIII

Hor gure itxaropena: Kurutzatua

Bizitzari irribarre
gura neuntsan egin
t'ume baten heriotzak
negar daust eragin.

Gaur Kristoren Pasioa
zerez pentsau daukat,
ez dau alperrik Jainkoak
kurutzea jasan.

Zer legiken kurdo baten
halako heriotzak!

Ulergarria jat orain
Kristoren kurutza.

Neuri mingarri jatala
ume-heriotza,
zenbat mingarriago
Jainko Aitarentzat...!

Berbizkundera ez baleust
Jainkoak agindu,
ume harentzat behenipehin,
nenkeion otoiztu.

XIV

Bera da askapena: **Kristo**

Nork askatu naike ni
neure argalkerietatik?
Zeugan dot nik askapen,
Zeugan nik itxaropen,
Zeugan bakarrik.

Nork askatu naike ni
droga, sekxu-katetatik?
Zeure kurutzak, Kristo,
zeure neke, Pasio...
Zeugan bakarrik.

Nork askatu naike ni
betiko heriotzatik?
Zeure Heriotz latzak,
ta Berbizteko aintzak,
Zeuk, Zeuk bakarrik.



XV

Lurraren itxaropena (14)

Ibaiak negar, aireak kedar
 erregarrien kiratsa,
 teknika hutsaz ekolojiak
 ezin oreka ardatza.

Jainko Egile, zeure eskutik
 haseran urten-edertza
 landu beharrez, bihurtu dogu
 geure okerren baratza.

Ez gara nonbait geure burua,
 ez ingurua zaintzeko,
 pekatuaren kutsadureak
 barrutik azaleraino
 oratu gaitu ta Zuk bidaldu
 Seme dozun gure Kristo,
 uharren haundiz kutsaduratan
 ez gaitezen danok itto.

Jesus, kurutzaz desegin dozu
 gure hobenen kutsua,
 zure odolaz garbitu gure
 ibaien uhar putsua.
 Gizaki zaharra Zeugaz ehortzi,
 itzul arnasa mosuaz
 bizi barria merezi daigun,
 Berbizkunde aintzatsua.

XVI

**Kristo kurutzatua gudan
Jainko-asmoen agerkunde**


Eskerrak Zuri, Seme
Kristoren odolean
hobenen parkamena
lortu dauskuzulako.

Eskerrak, Zuri, Jauna,
ilunpetik askatu,
santuen oinordeko
egin gaituzulako.

Eskerrak Kristorengan
zeure antza agertuz,
zenbat maite gozuzan
esan dauskuzulako.

Esker Haren Bizteaz
seme-alabakooi
berbizkunde-agintza
egin dauskuzulako.

Doinuak



Herrikota

1.

Musical score for 'Herrikota' in G major, 4/4 time. It consists of four staves of music. The first staff begins with a treble clef, a key signature of one flat (F major), and a common time signature. The melody is written in a simple, folk-like style with quarter and eighth notes. The second and third staves continue the melody. The fourth staff ends with a double bar line and the marking 'DC.' (Da Capo).

(Ahapaldiak)

Herrikota

2.

Musical score for 'Herrikota' with 'Ahapaldiak' (ornaments) and 'Danak' (trills). It consists of four staves of music. The first staff is in G major, 2/4 time, and includes the marking '(Ahapaldiak)'. The second staff continues the melody. The third staff includes the marking '(Danak)' and shows trills. The fourth staff concludes the piece.

Bertsolariena

3.

Musical score for 'Bertsolariena' in G major, 3/4 time. It consists of three staves of music. The first staff begins with a treble clef, a key signature of one flat (F major), and a 3/4 time signature. The melody is more complex than the previous pieces, featuring sixteenth and thirty-second notes. The second and third staves continue the melody.

Pasio Kantategia

Bertsolariena

4.  Musical score for piece 4, Bertsolariena, 3/4 time signature. The score consists of five staves of music in a single system. The key signature has one flat (B-flat), and the time signature is 3/4. The melody is written on a single treble clef staff. The piece begins with a quarter rest, followed by a series of eighth and quarter notes, ending with a quarter note on a sharp (F#).

Bertsolariena

5.  Musical score for piece 5, Bertsolariena, common time signature. The score consists of four staves of music in a single system. The key signature has one flat (B-flat), and the time signature is common time (C). The melody is written on a single treble clef staff. The piece begins with a quarter note, followed by a series of quarter and eighth notes, ending with a quarter note.

Bilintx

6.  Musical score for piece 6, Bilintx, 6/8 time signature. The score consists of five staves of music in a single system. The key signature has one sharp (F#), and the time signature is 6/8. The melody is written on a single treble clef staff. The piece begins with a quarter note, followed by a series of eighth and quarter notes, ending with a quarter note.

Bertsolariena

7.

Bertsolariena

8.

Bertsolariena

9.

Pasio Kantategia

Bertsolariena

10.

Bertsolariena

11.

Herrikoia

12.

Bertsolariena

13.

Herrikoia

14.

15.

§ (Errepika) P. Barturen

(Ahapaldiak)

§

P. Barturen

16. (Errepika)

(Ahapaldiak)

P. Barturen

17. (Errepika)

(Ahapaldiak)

P. Barturen

18. (Errepika)

(Ahapaldiak)

P. Barturen

19. (Errepika)

(Ahapaldiak)

(Ahapaldiak)

(Ahapaldiak)

20. (Errepika) P. Barturen

(Ahapaldiak)

21. (Errepika) P. Barturen

(Ahapaldiak)

22. (Errepika) P. Barturen

(Ahapaldiak)

Pasio Kantategia

P. Barturen

23. (Errepika)

(Ahapaldiak)

Detailed description: This musical score for piece 23 consists of four staves. The top staff is a vocal line in G major, 2/4 time, starting with a treble clef and a common time signature. The second staff is a piano accompaniment in G major, 2/4 time, with a treble clef. The third and fourth staves are piano accompaniment in G minor, 2/4 time, with a bass clef. The piece is marked '(Errepika)' and '(Ahapaldiak)'. The piano part features a rhythmic pattern of eighth and sixteenth notes.

P. Barturen

24. (Errepika)

(Ahapaldiak)

Detailed description: This musical score for piece 24 consists of three staves. The top staff is a vocal line in G major, 12/8 time, starting with a treble clef. The second and third staves are piano accompaniment in G major, 12/8 time, with a treble clef. The piece is marked '(Errepika)' and '(Ahapaldiak)'. The piano part features a rhythmic pattern of eighth and sixteenth notes.

P. Barturen

25. (Errepika)

(Ahapaldiak)

Detailed description: This musical score for piece 25 consists of four staves. The top staff is a vocal line in G major, 12/8 time, starting with a treble clef. The second and third staves are piano accompaniment in G major, 12/8 time, with a treble clef. The fourth staff is piano accompaniment in G major, 12/8 time, with a bass clef. The piece is marked '(Errepika)' and '(Ahapaldiak)'. The piano part features a rhythmic pattern of eighth and sixteenth notes.

P. Barturen

26. (Errepika)

Detailed description: This musical score for piece 26 consists of two staves. The top staff is a vocal line in G major, 6/8 time, starting with a treble clef. The bottom staff is piano accompaniment in G major, 6/8 time, with a bass clef. The piece is marked '(Errepika)'. The piano part features a rhythmic pattern of eighth and sixteenth notes.

Musical score for 'Ahapaldiak'. It consists of four staves of music in a key signature of two flats (B-flat and E-flat). The first staff begins with a treble clef and a 9/8 time signature. The second staff is marked '(Ahapaldiak)'. The third staff continues the melody with a 6/8 time signature. The fourth staff concludes the piece with a double bar line.

27. *(Errepika)* *A. Amundarain*

Musical score for 'Errepika' by A. Amundarain. It consists of six staves of music in a key signature of two flats. The first staff is in 3/4 time. The second staff is marked '(Batzuek)'. The third staff changes to 2/4 time. The fourth, fifth, and sixth staves continue the melody and accompaniment.

28. *(Errepika)* *P. Barturen*

Musical score for 'Errepika' by P. Barturen. It consists of four staves of music in a key signature of two flats and a common time signature (C). The first staff is marked '(Errepika)'. The second staff is marked '(Ahapaldiak)'. The third and fourth staves continue the melody and accompaniment.

HIZTEGIA

- ahapaldi: *estrofa*
 alagala: *por gala*
 antzekizun: *teatro*
 ararteko: *bitarteko*
 areago: *oraindik gebiago*
 asketsi: *parkatu*
 basa: *basati*
 beilatu: *bigilatu*
 benaz: *benetan*
 bildu: *batu*
 debru: *deabru*
 deslaitu: *bide-galdu*
 doi: *bete*
 doinu: *musika*
 ebatzi: *erabagi*
 ebatsi: *ostu*
 egotzi: *(errua) bota*
 ehortzi: *hobiratu*
 eredu: *modelo*
 erori: *jausi*
 eskumuina: *eskoi*
 estikatu: *atzera eragin*
 estratza: *bide estu*

etsi: *itxaropena galdu*
etzangu: *obe*
ezetsi: *ezaintzat hartu*
gantzugarri: *ukendu*
gertakaria: *jazorikoa*
gertu: *bur*
hautatu: *aukeratu*
herio: *heriotz*
hoben: *pekatu*
hobendun: *gaizkile*
hobi: *bilobi*
hoska: *deika*
igande: *domeka*
ikaslegoa: *ikasle taldea*
iragarri: *adierazten emon*
iskilu: *arma*
izugarri: *bildurgarri*
jaregin: *askatu*
jarein: *aske, askatu*
jaretsi: *lortu*
jasale: *sufridor*
jasan: *eroan*
jaurritu: *jagon*
jauspide: *escándalo*
jazarri: *jarraiki*
judu: *judegu*
kiratz: *kedar-batz*
lorratz: *segimiento*
lurdi: *lur*

maxkal: *abul, endakatu*
mereziren: *mereziko*
mezu: *mensaje*
mintz baltz: *negativo*
ohartu: *konturatu*
oldez: *borondatez*
oroitu: *gomutau*
otoi: *mesedez*
otoiztu: *erregutu*
partele: *partaide*
pretor: *nagusi*
salatu: *akusatu*
sorgu: *iturri*
sorta: *karga*
urru: *ubari*
zamai: *amenazu*
zinez: *benetan*
zintugun: *zinduguzan*
zuhurtzi: *zuhurtasun*
zumo: *jugo*

AURKIBIDEA

Sarrera	5
I. JESUKRISTOREN PASIOA	7
I. Jesus Afaltokian	8
II. Jesus Sanedrinean.....	10
III. Jesus Getsemanin	10
IV. Jesus Sanedrinean.....	12
V. Jesus Pretorioan.....	14
VI. Jesus Kalbario-bidean.....	16
VII. Jesus Kurutzean	17
VIII. Jesus Hilobi-inguruan.....	20
II. PASIO KANTATEGIA.....	21
I. Kurutzatua.....	22
II. Semea emoteraino.....	23
III. Hona nire gorputza	24
IV. Hona nire gorputza	25
V. Bai maite ginduzala.....	26
VI. Bizia emoteraino.....	26
VII. Bere bizia maite dauenak.....	27
VIII. Txikiotako bati.....	28
IX. Kristo kurutzatua	29
X. Bai maite ginduzala.....	30
XI. Jesus ordezt hartzeko.....	31
XII. Andre Maria zutik.....	32
XIII. Kristoren zauriak	33
XIV. Kristo kurutzatua	34
XV. Geure haragian	35
XVI. Eskerrak Zuri, Jesus	36
XVII. Zorioneko errua.....	37
XVIII. Maite behar zaitugu.....	38

III. MISINO-KURUTZEAREN	
OSPAKIZUNA.....	39
I.	40
II.	42
III.	43
IV.	45
V.	46
VI.	47
VII.	49
VIII.	51
IX.	52
X. Kurutzea eta sasiak	53
XI. Kurutzea eta zauriak	54
IV. GAURKO KURUTZATUAK.....	57
I. Kurutzemendi	58
II. Gaitza hor dago: gudea	61
III Gaitza hor dago: gosea.....	62
IV. Gaitza ta itxaropena: Eirene	63
V. Gaitza hor da: abortoa.....	64
VI. Hor deiarra: Kurutzatuagan	65
VII. Pasiokideak	66
VIII. Horra Jesus kurutzean: gaisoa.....	67
IX. Hor dago epaia: Kristogan	69
X. Hor gure arma: kurutzea	70
XI. Horra espilua: Kristoren zauriak	71
XII. Gosea ta ogia.....	71
XIII. Hor gure itxaropena: Kurutzatua	72
XIV. Bera da askapena: Kristo.....	73
XV. Lurraren itxaropena	75
XVI. Kristo kurutzatua gudan, Jainko-asmoen agerkunde	76
DOINUAK	77
HIZTEGIA	89

1.- *Zu ta Ni, Biok*

2.- *Pasio kantategia*

